

## DIRU-SARRERAK

Atal honetan gure diru-sarrerak nondik aterako diren azalduko dugu. Gure aplikazioaren atal premium-a PayPal, Apple Pay... bidez ordaindu ahalko da. Ordaindutako 15% ONG batera joango da WWF izenekoa. ONG-a nazioarteko gobernuz kanpoko erakunde bat da, ingurumenaren kontserbazioari, ikerlanei eta oneratzeari buruzko gaietan lanean diharduena.

Baita ere aukera izango duzu aplikazioa zure mugikorretik edo tabletatik desinstalatzeko eta nahi duzunean ordaintzen gelditu iraunkortasunik eta konpromisorik gabe. Jakin ezazu nahi duzunean berriro instalatu ahal dezakezula aplikazioa, eta behin aplikazioa edukita, ez duzu berriz ordaindu behar atal premium-aren lehenengo ordainketa. Hilabetero atal premium-a ordaindu beharko duzu hau eduki nahi badezu.

### DIRU SARREREN ESTIMAZIO BAT:

- ❑ Aplikazioaren instalazioa doainikoa da.
- ❑ Aplikazioaren atal premium-a (funtzio eta atal guztiekin): 4,99€/6hileko

Gure prezioak egokituak daude eskuragarri izateko baina gure aplikazioaren kalitatea galdu gabe.

Esatebaterako, gure aplikazioa eskura izan dezakezu baliabide desberdinetan: Google Play, App store edo Google-tik, horrela, eskurago egongo da pertsona gehiagorentzat. Esan behar da aplikazioa gauza eta funtzionamendu berdina izango duela Windows, IOS, Android, Flyme...duten mugikorretan/tabletetan.

